




ORTZAIZEKO
HERRIKO
ETXEA
—
MAIRIE
D'OSSÈS

2025-EKO PRIMADERAKO HIRUHILABETEKARIA

BULLETIN TRIMESTRIEL DU PRINTEMPS 2025



ARROSATEGIA



Ikusi dukezen bezala, apiril hastapen huntan hasi dira obrak Arrosategian. Zenbait egun lehenago, martxoaren 28an, bilkura publiko bat antolatua izan zen Denen etxean eta han, Gauche arkitekto enpresak planak, egutegia eta obra guzien harat hunatak aurkeztu zituen. Dena behar bezala badoa, obrek helduden abenduko behar lukete bururatuak izan.

Jadanik aipatua izan zaizuen bezala, proiektu horrek aldaketa handia ekarriko dio Ortzaizeri, Herriko etxe berriari bizia emateaz gain, pilota plaza bat, eremu antolaketa berri bat eta eskolen inguruen segurtaze bat eskainiko ditu proiektuak. Hainbat aldaketa, herritar guziek baliatzen ahalko dituztenak.

Comme vous avez pu le constater les travaux d'Arrosategia ont débuté au début du mois d'avril. Quelques jours plus tôt avait eu lieu une réunion publique dans laquelle le cabinet d'architectes Gauche avait présenté les plans et le calendrier prévisionnel des travaux. Ce projet apportera un grand changement au village. Au delà de la nouvelle Mairie, c'est entre autres, un nouveau fronton, des espaces mieux aménagés et plus sécurisés aux abords des écoles que ce projet offrira. De nouveaux espaces dont tous les villageois pourront profiter.



Horra merkatu publikotik hautatuak izan diren enpresen zerrenda.

Voici la liste des entreprises ayant été choisies à la suite du marché public.

Amianto kentzea /Désamiantage : AI DESAMANTAGE	Lur berdintzea / Bide eta sareak / Terrassement / VRD : CTN / AGUERRE TP	Obra larriak / Suntsitze Gros œuvre / Démolition : DIBARGINTZA / XB DEMOLITION	Zureri / teilatu Charpente / couverture: LAN BERRY / TROUNDAY	Irazgaiztasun / Etanchéité : SUD ATLANTIQUE ETANCHEITE
Sarrailagile / Serrurerie : MAKUR METAL	Kanpoko zurak /Menuiseries extérieures bois : LAN BERRY / TROUNDAY	Barneko zurak / Menuiseries intérieures bois : AHADO XAVIER	Igeltutzea / Sabaia Platrerie et plafond : OLHAGARAY	Lauza eta faiantza /Carrelage et faïence : OYHAMBURU CARRELAGE
Tindua / Peinture : CLEDON	Igogailu / Ascenseur : TK ELEVATOR	Iturgintza / Haizeztatze sistema / Plomberie / VMC : ARGIEGIN	Elektrika / Electricité : ARGIEGIN	Berdeguneak / Zerradurak / Espaces verts / clôtures : POINT GREEN

ZUBIALDEKO ZUBIA

Urtekarian aipatu bezala, arraberritze lanak eginak izanen dira Zubialdeko zubian. Urak apalenean izanen direlarik Duhalde enpresak abiatuko ditu udan. 4 hilabete iraunen dute,zubia arrunt zerratua izanen delarik hilabete batez.

500000€ inguru kostako da, laguntzer esker arinduko duguna.

PONT DE ZUBI ALDE

Comme évoqué dans le bulletin municipal, des travaux de mise aux normes et de sécurisation du pont Zubialde se dérouleront cet été. Ils s'étaleront sur 4 mois, le pont sera fermé à la circulation environ 1 mois. Suite à l'appel d'offre, c'est l'entreprise Duhalde qui réalisera les travaux pour un montant avoisinant les 500000€. Les subventions, en cours de finalisation, allègeront le coût pour la commune.

EUSKARALDIA

Euskaraldia consiste en un exercice pratique qui vise à aider, à changer les habitudes linguistiques en faveur de l'euskara dans tout le Pays Basque. Il se déroulera du 15 au 25 mai 2025. À Ossès, l'association Urzaiz proposera des animations spécifiques. Par ailleurs, la municipalité soutient l'initiative et y participe en promouvant et encourageant les salariés tout autant que les habitants à y prendre part.



ZER DA EUSKARALDIA?

Nahi edo ahal bezainbeste egiten ote duzu euskaraz?

Euskaraldia hizkuntza ohiturak euskarara gehiago ekar ditzazun lagunduko dizun ariketa praktikoa da. Hau da, euskaraz gehiago, gehiagotan eta jende gehiagorekin egiteko elkarrekin egiten dugun ariketa sozial erraldoia.

NOIZ EGINEN DUGU?

Gaur bertan has zaitezke praktikatzen, baina, Euskaraldia ariketa maiatzaren 15etik 25era izango da, 11 egunez.



NORK PARTE HAR DEZAKE?

Euskaraz ulertzen duten 16 urtetik gorako herritarrek.


NOLA EGINEN DUGU?

Denek batean ! Ahobizi edo belarriprest txapa jantzita. Txapak aurrean dugunari mezu argia helarazten dio: nirekin egizu euskaraz, lasai!



PAREKATZEA

Un de nos souhaits étant de s'ouvrir à tout le Pays Basque, la commune a été mise en relation, par le biais de l'organisation Udalbirtza, avec la ville de Lezo. Cette commune est située en Gipuzkoa à une heure de route d'Ossès. Le 5 avril, trois conseillers ont été à la rencontre de quelques élus de Lezo. Un accueil très chaleureux leur a été réservé. Bien que Lezo soit bien plus grand qu'Ossès (6000 habitants), de nombreux points communs sont apparus: un club de football, une course en montagne, un groupe de danse, un groupe de musique... Une délégation de Lezo viendra à son tour en visite à Ossès dans les prochaines semaines.



JUMELAGE

Gure asmoetarik bat dugu Euskal Herri osoari idekitzea. Udalbirtza erakundeari esker harremanetan sartu gira Lezo herriarekin, Gipuzkoan kokatzen da hemendik oren bat bide. Apirilaren 5ean, herriko hiru kontseilari Lezorat joan dira hango hautetsi batzuen ezagutza egiteko. Ongi etorri biziki on bat ukan dute. 6000 biztanleko herri bat izanik ere ohartu gira puntu amankomun ainitz badugula. Hala nola, zangobaloi talde bat, mendi lasterketa bat, dantza talde bat, musika talde bat... Ortzazera jin beharrak dira ondoko asteetan.

KULTURA

Heldu den agorrilaren 16tik 30era, Garazi Albizua errezebituko dugu herrian artista egonaldi baten karietara. Bizkaitarra da eta euskarazko literatura idazlea.

Egonaldi garaian, Ortzaiztarrengana hurbilduko da, solasteko. Ikusten eta bizitzen duenean oinarrituz, sorkuntza bat proposatuko du, euskarazko testu bat idatziz.

Familiarekin pasatuko ditu egun horiek herrian.

Interesa duzuenek berarekin harremanetan sartzeko, elkarrizketa baten egiteko edo herriaren ezagutarazteko, aktibitate bat proposatuz adibidez, bera eta bere familiari, jakinarazten ahal diezue Herriko etxera deituz edo idatziz.

Egonaldi hori Udalbiltzak antolatzen duen Geuretik Sortuak programaren baitan egiten da. Hainbat artistek egonaldiak egiten dituzte Euskal Herriko xoko desberdinetako herrietan eta denek sorkuntzak proposatuko dituzte. 2026 urtean zehar, sorkuntza horien parte baten deskubritzeko parada izanen dugu herrian, Garazik berea aurkeztuko duen bezala, zazpi probintzietan barna.

LAK'ARTEA



2024an Lak'arte momentua bizitzeko paradarik ez badugu ukan, proposamen berria helarazten dizuegu heldu den uztailaren 16an, astezkenez, zuen arte obren erakusteko 17:00etatik aitzina ilundu arte, haurren parkearen ondoko eremuan.

Edozein sorkuntza mota ongi-etorria da. Musikariak ere ez dudatu momentu goxo horren alegeratzeko, zuen buruaren proposatzen! Beste proposamenendako ere izanen da leku, ez gorde eta ekarri ideiak plazara!

Interesatua baldin bazira, sartu harremanetan Herriko etxeko Floriane-ekin mail bat igorritz edo telefonoz deituz. Izenak heldu den ekainaren 30eko eman behar dira berantenik.

CULTURE

Entre le 16 et le 30 août prochain, nous accueillons une écrivaine bascofone à Ossès pour une résidence d'artiste : Garazi Albizua, Biscayenne.

Durant le séjour, elle ira à la rencontre des habitants pour échanger, découvrir la vie et les habitudes des uns et des autres. À partir de ce matériau, elle proposera une création en euskara inspirée de la vie à Ossès.

Lorsque vous la croiserez, n'hésitez pas à entrer en contact avec elle ou à lui faire découvrir un coin du village que vous aimez particulièrement. Vous pouvez aussi entrer en contact avec la Mairie. Elle n'est pas francophone.

Cette résidence se déroule dans le cadre du programme Geuretik Sortuak d'Udalbiltza. Plusieurs artistes du Pays Basque réalisent des résidences dans des communes distinctes et en font une création originale. En 2026, une partie de ces oeuvres produites sera présentée à Ossès. Garazi ira, elle, présenter son travail sur Ossès dans d'autres communes participantes.

Si en 2024 nous n'avons pas pu profiter de ce moment agréable sous les platanes, nous vous proposons de renouveler l'initiative cet été 2025 en plein centre bourg près du parc des enfants : le mercredi 16 juillet à partir de 17h, vos plus belles créations, peintures, illustrations, photos, sculptures, céramiques, mosaïque... seront les bienvenues ! Les musiciens sont également invités à proposer un instant musical. Toute autre initiative est la bienvenue, la scène est ouverte, à vous de la saisir !

Si vous êtes intéressé ou si vous souhaitez davantage d'informations, merci de contacter Floriane à la Mairie par mail ou téléphone. Les inscriptions sont à faire pour le 30 juin au plus tard.

AGENDA



MAIATZA
23,4
MAI

Lan herrixkako
ate idekiak
Portes
ouvertes
village artisan.

EKAINA
9
JUN

Erreka
garbitzea
Nettoyage
de rivière

MAIATZA
15
MAI

Euskaraldia
Kantu eta Pintxo
Asteburua 19:00

EKAINA
22
JUN

Besta berri
Fête Dieu

UZTAILA
16
JUILLET

LAK'ARTEA
+
Zinema kanpoan:
"Agur Etxebeste!"
Cinéma en plein
air

UZTAILA
19/20
JUILLET

Ahaizemendiko
bestak
Fêtes
d'Ahaizemendi